

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Foru Gobernuak toki erakundeen laguntza jaso du ikur frankisten errolda egiteko

Ollo kontseilariak eta Alvaro Baraibarrek Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioari ikur horiek kentzeko jarduera-programa helarazi diote

Viernes, 29 de enero de 2016

Nafarroako Gobernuak toki-erakundeen laguntza eskatuko du honako hauei buruzko errolda bat egiteko: frankismoari lotutako pertsona edo gertaerei buruzko ikur, kondaira, aipamen eta kale-izenak, haiek kendu aurretiko urrats modura, memoria historikoaren gaian aurreikusitako jardueren barnean.



Ollo kontseilaria, Pablo Azcona eta Álvaro Baraibar, ikur frankistak kentzeko programaren aurkezpenean.

Hala jakinarazi dute gaur goizean Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Ollok eta Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari Pablo Azconak emandako prentsaurrekoan, agerraldi horren xedea ikur frankistak kentzeko bi erakundeen arteko lankidetzaz-esparrua aurkeztea izan da. Ekitaldian, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusi Alvaro Baraibarrek ere parte hartu du.

Iragan abenduan jadanik iragarri zen moduan, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak memoria historikoaren alorrean duen lan-ildoetako bat ikur frankistak espazio publikotik kentzean oinarritzen da; horretarako, eragile guztien inplikazioa eta lankidetzaz funtsezkotzat jotzen da.

Helburu horrekin, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko ordezkariekin bildu da berriki, eta hari era horretarako ikurrak kentzeko programaren xehetasunen berri eman zion; horrekin batera, programa hori zabaltzeko eta abiarazteko laguntza eskatu zion. Nafarroako Gobernuaren ustez, Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak komunikazioko eta toki-erakundeetara hurbiltzeko lan garrantzitsua egin dezake, bai eta koordinazio-lana ere informazioa transmititzeko orduan.

Hala, toki erakundeekin lehen harreman bat proposatzen da gutun bat bidaliz; bertan, gai hori arautzen duen lege-esparrua azaltzeaz gain, udalerrri bakoitzeko kaleetan dauden frankismoari lotutako pertsona edo

gertaerei buruzko ikur, kondaira, aipamen (seme kuttun aitortzea, adibidez) eta kale-izenen gaineko informazioa eskatzen da. Jasotako dokumentaziotik abiatuta, jadanik dagoenarekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Memoria Historikorako Funts Dokumentalarekin egiaztatuta, frankismoari buruzko ikur-errola bat egingo da, ondoren kendu ahal izateko. Gutunean, gainera, Nafarroako Gobernuak duen konpromisoa eta prestutasuna adierazten da edozein zalantzaren gainean aholkularitza emateko, hura argitzeko eta ikur frankistak kentzeko laguntza emateko orduan.

Aldi berean, Memoria Historikoaren gaian koordinazioko Batzorde Teknikoa berritzen ari dira, eta hark ikur-mota bakoitzaren aurrean nola jokatu esaten duen agiri bat prestatuko du. Agiri hori (haren zirriborroan Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusia jadanik lan egiten ari da) toki-erakundeei ezagutaraziko zaie aplikatu ahal dezaten, eskualde eta merindadetako alkateekin egindako bilera-programa batean.

Programa horrek eragindako garrantzi handieneko ikurretako bat Nafarroako Jauregiko pilotalekuan dagoen Nafarroako armaria da, San Fernandoren Ordenaren gurutzea duena. Gobernuak obra kentzeko zer aukera dauden aztertu du jadanik (1951koa da), Memoria Historikoaren Foru Legea betez.

Vianako Printzea erakundearen txosten bat oinarritzat hartuz, Herriarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentuak armarritik San Fernandoko Ordenaren gurutzea kentzeko erabakia hartu du, legearen betebeharrak betez horrela eta obra babestuz; horrenbestez, "eraikinaren balio arkitektoniko eta erliebeari" ez dio eragingo, txostenean azaltzen den moduan.

Lege-esparrua

Gogora ekarri behar da, 2003ko Nafarroako Parlamentuaren adierazpen baten ostean (bertan "askatasunaren aurkako elementu sinbolikoak kentzeko" beharra ezartzen zen), eta urte bereko Foru Lege baten adierazpenaren ostean (frankismoarenak ziren ikurrak kendu eta aldatzeko betebeharra adierazten zuen), 33/2013 Foru Legea 2013an onartu zen azkenean; azken horren helburua "frankismoaren errepresioak Nafarroan hildako edo haren biktimak izan ziren pertsonen lotutako memoria historikoa berreskuratzea" da.

Lege horrek "betebehar publikoak eta erakunde pribatuenak finkatzen ditu ikur, kondaira eta aipamen frankistak kentzeko orduan", bai eta "aitorpen, izendapen, titulu eta ohore instituzionalen baliogabetzean ere". Zehazki, 11. artikulua ezartzen duenez, "Nafarroako Gobernuak, beren eskumenen egikaritzean, dagozkion neurriak hartuko ditu Gerra Zibilaren eta errepresio frankistaren altxamendu militarreko goraipamena (pertsonalak edo taldekakoa) ospatzeko armari, plaka edo beste objektu edo aipamen kentze aldera.